# Berriztarra

Berrizko Udal Aldizkaria / 2023ko martxoa #05




berrizko
UDALA

# Emakumeen Nazioarteko Eguna Berrizen




Martxoan zehar hainbat jarduera antolatu dira Emakumeen Nazioarteko Eguna aldarrikatzeko. Urtero bezala, mobilizaziorik garrantzitsuena arratsaldeko Martxa Bateratua izango da. Martxa 19.00etan hasiko da Udaletxean eta Olakueta plazan amaituko da, Azeri Gorriak, Emakume Migratuak eta Gure Izarrak talde feministak deituta. Berrizko Udalak deialdiarekin bat egiten du. Kontsultatu programazioa QR kodean edo www.berriz.eus helbidean.

Durante todo el mes se han programado diversas actividades para reivindicar el Día Internacional de las Mujeres. Como todos los años, la movilización más importante será la Marcha Conjunta de la tarde, que comenzará a las 19.00 horas en el Ayuntamiento y finalizará en la plaza Olakueta, convocada por Azeri Gorriak, Emakume Migratuak y el colectivo feminista Gure Izarrak, a la que se suma el Ayuntamiento de Berriz. Consulta la programación en el QR o en www.berriz.eus

M8 ez da ulertzen mugimendu eta borroka feminista gabe gizartea aldatzeko eta aurrera egiteko eragile gisa, eta Berrizen azpimarratzekoa da Gure Izarrak, Berrizko Emakume Migratuak eta Azeri Gorriak elkarteek egiten duten lana.

El 8M no se entiende sin el movimiento y la lucha feminista como motor de cambio y avance social y en Berriz, es de destacar la labor y el papel que desempeñan las asociaciones de mujeres como Gure Izarrak, Berrizko Emakume Migratuak y Azeri Gorriak.

# «Hay que luchar por las mujeres sin voz»

Berrizko Emakume Migratuen Elkartea

**¿Qué consecuencias ha dejado la pandemia en la lucha por la igualdad?**

Hemos vuelto para atrás y todavía falta mucho para poder recuperar, pero hay que seguir y hay que hacerlo dentro de la lucha de la humanidad porque los pobres y los débiles son siempre los primeros en caer, sea hombre o mujer, pero la mujer es siempre quien más lo sufre.

**¿Cuáles son vuestros objetivos o líneas de trabajo?**

Nuestro objetivo es ser referente de las mujeres migradas; ser un apoyo, ofrecer asesoramiento, acompañamiento, ayudar con el idioma porque eso es un primer obstáculo para aquellas mujeres que llegan de otros países que no hablen en castellano.

**A lo largo del año, ¿qué tipo de campañas, actividades o iniciativas lleváis a cabo?**

Ahora mismo estamos con la campaña del 8M, hemos hecho una pancarta y estamos intentado movilizar a todas las mujeres migradas y esperamos que podamos seguir haciendo muchas más actividades. Tenemos nuestros estatutos, estamos trabajando a través de la asociación y hemos hecho la presentación para funcionar. Este año hemos participado también como asociación en el Consejo Municipal para la organización del próximo encuentro intercultural.

**Por último, ¿qué mensaje trasladaríais a la ciudadanía berriztarra de cara al 8M?**

Tenemos que seguir luchando. Es la vida y hay que luchar para las niñas que vienen por detrás, para las mujeres que todavía no tienen voz y que no pueden protestar y reclamar.

# «Todavía hay mucho por hacer»

## Gure Izarrak

**¿Con la pandemia hemos dado un paso atrás en la lucha por la igualdad?**

Desde luego. Partiendo de un mercado laboral no igualitario, creemos que la pérdida de empleo y la reincorporación de la mujer al mercado laboral se ha visto perjudicada. Por otro lado, en muchos hogares, la mujer ha tenido que lidiar en mayor medida con el cuidado de los menores, además de compaginar más carga en las labores domésticas y su trabajo fuera de casa. Tras la pandemia hay que romper de nuevo con esos roles. No podemos olvidar que la violencia de género también se agravó. Además, desconocemos la repercusión que la pandemia ha ocasionado en los casos ginecológicos y atención prenatal, claramente ralentizada en esa época; cuántos embarazos no deseados, consecuencias de diagnósticos tardíos...

**¿Cuáles son vuestros objetivos o líneas de trabajo?**

Desde 1994, nuestro objetivo es favorecer el encuentro, la formación, el ocio y el crecimiento personal de las mujeres. Ahora es necesario darle un nuevo enfoque para lo cual se requiere un relevo generacional. Actualmente la Asociación lleva a cabo un proceso de renovación de Junta Directiva.

**A lo largo del año, ¿qué tipo de campañas, actividades o iniciativas lleváis a cabo?**

En principio mantener los talleres existentes (club de lectura, taller de yoga, taller de talla de madera) y el Servicio de Asesoría Legal que se ofrece desde la asociación. También colaborar como hasta ahora en todas las actividades promovidas por los diferentes organismos y agrupaciones en torno a la mujer.

**Por último, ¿qué mensaje trasladaríais a la ciudadanía berriztarra de cara al 8M?**

Sobre todo, participación y visibilidad, porque todavía hay mucho por hacer.

# «Guretzat egunero da martxoak 8»

## Azeri Gorriak talde feminista

**Zuen ustez zer ondorio utzi ditu pandemiak berdintasunaren aldeko borrokan?**

Josten ari ziren sare asko bertan behera geratu ziren, lan erritmoak hautsi eta gozamen guneak deseraiki ziren. Zaintza sisteman ere eragin nabarmena izan du eta pandemiaren aurretik zeuden desorekak biderkatu egin dira; emakume askoren lan ordaindu gabeak eta etxeko langileen esplotazioak eusten dio oraindik gizarte-egitura gehienei, familiatik hasita. Gure ustez, zaintza lanek ezin dute negozio bat edo menpekotasun dinamika bat izan, ardura soziala baizik.

**Zeintzuk dira zuen helburuak edo lan-ildoak?**

Argi dugu matxismoak ez digula denoi berdin eragiten eta, beraz, berdintasuna lantzeko orduan ertz desberdinak kontuan hartzen saiatzen gara: arraza, adina, maila ekonomiko eta soziala, LGTBIQ+ kolektiboa... Kontziente gara ez garela jende askorengana iristen eta elkarrizketa hau aprobetxatu nahi dugu, guganа batu nahi duen edonori gonbidapena egiteko. Guretzako oso aberasgarria izan da Gure Izarrak, Emakume Pentsionistak edota Berrizko Emakume Migratuekin elkarlanean aritzea eta harreman horiek zaintzen jarraitu nahi dugu.

**Urtean zehar, nolako kanpainak, jarduerak edo ekimenak bultzatzen dituzue?**

Azaroaren 25a, martxoaren 8a edo maiatzaren 17a bezalako egun seinalatuetan ekintzak egin eta kalera irteteaz gain, herri mailako hainbat jarduera garatu ditugu: collage tailerrak, mendi irteerak, solasaldi literarioak... Horrez gain, DBHn eta eskolan sentsibilizazioa lantzeko hainbat dinamika egin ditugu.

**Mezu bat Emakumeen Nazioarteko Egunerako?**

Kaleak hartzera animatu daitezela esango genieke. Hala ere, ez dugu martxoaren 8a zuriketa ariketa bat izatea nahi; guretzat egunero da martxoak 8 eta egunero egin behar da feminismoa.

# «Dena bertako produktuekin egiten dugu. Ekonomia zirkularra eta energia berdea sustatuz»



Alazne Jaio berriztarra Delikatetxe Kooperatibaren parte da.

Emakumea eta ekintzailea. Alazne Jaio berriztarra, pandemia garaian ausartu zen Delikatxe proiektua gauzatzen. Bidelagun, Xabier Gorrotxategi eta Edurne Garcia izan zituen eta 2019az geroztik, hirurek, Delikatetxe Kooperatiba bizi-proiektua bilakatu dute. Bertoko produktugileen Km0 osagaiekin egindako elkagai osasuntsuen kooperatiba hau, bi helburu argirekin sortu zen: janaria alferrik galtzea murriztu eta bertoko produktugileak lagundu. Alazne Jaiok proiektu jasangarri honen nondik norakoak azaldu dizkigu, ekonomia zirkularreko eta energia berdearen erakusgarri gisa.

**Nola definituko zenuke Delikatetxe? Zer egiten duzue?**

Eusko Label arrautzak erruten dituzten oiloak, arrautzak jartzeko zikloa bukatzen dutenean, oiloak hartu eta oilo salda naturala egiten dugu, koipe gabekoa. Oiloen bularrekin, hanburgesak egiten ditugu, koiperik gabe eta proteina askorekin. Hanburgesa horiei saldan egositako barazkiak nahasten dizkiogu, hau da, kipula, porrua eta azenarioa. Bularrekin egiten dugun beste produktu bat albondigak saltsan dira. Dastatu daitekeen beste produktu bat, tipulada da; saldan egosi den kipula, azukre pixka batekin lurrunduta. Porruen kontserba bat ere badugu, eta, bestalde, saldan egosi ditugun oiloekin, okela aprobetxatzen dugu txakur eta katuen janari bat egiteko.

**Zuen proiektua ekonomia zirkularrekoa da eta zuen «baserriak» energia berriztagarrien aldeko apustua egiten du eguzki-indarra erabilita.**

Bai, hala da. Dena bertako produktuekin egiten dugu. Ekonomia zirkularra egiten dugu eta energia berdea erabiltzen dugu.

**Pandeamia garaian, zuen proiektua aurrera eramaten ausartu zineten. Hasiera erraza izan zen?**

Pandemiak hasieran harrapatu gintuen eta ez zen oso erraza izan aurrera eramatea. Gero koronabirusaren aldaera berriak etorri ziren, omicron-a eta beste hainbat aldaera eta orain Ukrainiako gerra eta horren ondorioak. Lan asko egin arren, oso zaila da.

**Eta etorkizuneko erronkak?**

Beste hainbat ideia eta proiektu ditugu buruan, baina salmentek ondo joan behar dute, erronka berri horiek aurrera eraman ahal izateko dirua behar baitugu.

**Delikatxe Kooperatiba lehen sektorearekin lotuta dago, zentzu horretan gaur egungo egoera nolakoa dela esango zenuke?**

Bai, gure proiektua galtzen ari den lehen sektore horri balioa ematean datza. Uste dut lehen sektoreari, gure baserritarrei eta abeltzainei balioa ematea oso garrantzitsua eta funtsezkoa dela.

Mujer y emprendedora. Desde el año 2019, la berriztarra Alazne Jaio, junto a Edurne Garcia y Xabier Gorrotxategi, impulsan un proyecto de vida que es un claro ejemplo de economía circular y sostenibilidad. La cooperativa Delikatetxe se ha especializado en producir alimentos saludables aprovechando ingredientes de Km0 y, por tanto, apoyando al primer sector. Así, el concepto de aprovechamiento y receta tradicional van unidos de la mano. Con productos elaborados de gallinas camperas que han terminado su ciclo fabrican caldo, hamburguesas, confitura de cebolla, puerros embotados y hasta comida para perros y gatos.